

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Izarren argia

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Izarren argia.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 93 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Mikel Rueda.

AKTORE-ZERRENDA: Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Badiola, Estibaliz Gabilondo, Amaia Lizarralde, Sara Cozar, Garbiñe Insausti, Teresa Calo, Patxi Santamaria, Aitor Beltra, Eric Probanza.

EKOIZPEN-ETXEA: Baleuko.

Sinopsia

1938ean Saturrarango emakumeen kartzela Espainiako Gerra Zibilean jazotako ankerkeriarik basatienaren lekuko izan zen. Victoria, errepublikar baten alarguna, ahizpa eta semearekin batera sartuko dute kartzelara. Gertutik ezagutuko du Gerra Zibilaren atalik ilunena. Victoria eta gainerako emakume presoak erregimen rankistak ezarritako zentzugabekeriaren lekuko zuzenak izango dira.

Gaiak

Itxaropena, maitasuna eta memoria

Itxaropena. Muturreko egoeretan itxaropenari heltzeko beharra azpimarratzen du pelikulak gizakia borrokatzen jarraitzea bultzatzen duen bide bakar, argi bakar gisa.

Maitasuna. Pelikulako protagonistek amaren maitasunaren doakotasuna adierazten dute beren seme-alaben ongizatea beren ongizatearen gainetik jartzera eramaten dituen, oso erabaki mingarriak hartzea dakarren arren.

Memoria. Pelikulak memoria-ariketa erakusten du; gerra-egoeretan emakumeek bizi dituzten zailtasunak, borrokak eta bizipen dramatikoak gogoratuz.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Giza duintasunari buruz: Zer esan nahi du? Zer dakar? Pertsona guztiek bere giz duintasuna al daukate, beren ideologia politikotik eta erlijiosotik haratago? Gerrak errespetatzen al du giza duintasuna?
- Fanatismoari buruz: Zer gertatzen da ideologia edo erlijioa helburu bilakatzen direnean? Nola jokatzeko dugu geure uste sendoeekin bat ez datozenekin?
- Memoriari buruz: Berradiskidetzean, iraganeko gertakariak berreskuratu behar al ditugu edo ahaztu egin behar ditugu? Zergatik?

...pelikula ikusi ondoren

- Zer gertatzen da pedroren eta Victoriaren artean? Maitasun-harremana al da? Pedrok Raulen egoera ezkutatzeko al dio? Nola? Zergatik? horrelako egoera batean nola jokatu zenuke?
- Panterak eta Sor Angelesek zergatik torturatzen dituzte preso dauden emakumeak? Zer lortu nahi dute krudelkeri horrekin? Beren ekintzak zalantzan jartzen al dituzte?
- Emakume batzuk zergatik jartzen dira beren seme-alabak ematearen kontra? Jesusak zergatik egiten du? Zerk eramaten du hori egitera?
- «Ezin da inor behartu sinestera». Sagrarioren hitzek zer dakarkizute?

Itxasne Etxeberriaren laguntzarekin.

baketik arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa
Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

Cine para **vivir y convivir**

Izarren argia



baketik arantzazu

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Giza Elkartasunaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

943-251005

www.baketik.org